



6. Bezeroarekiko harremanak

Lehenik eta behin, proiektu hau merkatu zabal batean sartzeko ideia dugu, baina hasieran Sestaoko Polikiroldegiarekin hasiera emango diogu gure proiektuari. Gure herriko jendea polikiroldegira eta proiektu berri honetara erakartzeko, lehen esan dugun moduan, hainbat baliabide ditugu:

→ **Publizitatea, batzarrak eta hitzaldiak.** Beste hainbat enpresa bezala, ekitaldiak eginez eta publizitatea banatzen gure helburua beste lekuetara zabaltzeko aukera izango dugu. Honekin espero duguna da beste herrialdeetako pertsonak proiektu honetan edota beste proiektu ekologikoetan parte hartzea mundu hobeago bat eraikitzeko.



→ **Web-orriak eta sare-sozialak.** Izugarritzko indarra dute gaur egungo bizitzan. Ia mundu guztia sare-sozialen bidez hainbat gauza ezagutu ahal ditu. Orduan, hainbat gimnasio partikular eta publiko gurekin kontaktuan jarriko dira, eta EnerGym proiektuan parte hartu ahal izango dute.



Web-orria



Twitter

Horrez gain, gimnasio horretan parte hartzen duten bezeroek hilabetearen amaieran deskontu bat izango dute. Hau da, gimnasia joaten diren kirolariek energia garbia gimnasioarentzat sortzen dutenez, deskontu bat izango dute produzitu dutenaren arabera. Adibidez spinning klaseak hilabetero 16€-ko kostua dute, bi aldiz astean joanda. 0.5€ deskontatuko zaie egun bakoitzeko, beraz hilabete batean 4 aste daudenez eta astero birritan joanda, 8 egun izango ziren. $8 \times 0,5 = 4€$ -ko deskontua. Hilabete bateko spinning klaseen kostua 16€-ko spinning klaseak 12€-koa izango litzateke. Nork joaten den eta nork ez kontrolatzeko, kirolari bakoitzak bere txartela izango du gimnasioan sartzeko (gaur egun ditugunak bezala)



Gure proiektua zer nolako alde onak eta alde txarrak izango dituen ikusteko AMIA (DAFO) egin dugu.

